# BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuak hezkuntza sisteman aztertu ditugun hainbat arazo konpontzen ditu. Guk ikusi dugun bezala, hezkuntza arloa ez dago teknologia berrietara egokituta. Gainera, konturatu gara mahaiak eta aulkiak ez direla egokienak klasean eroso egoteko eta arazo honetaz ikasle asko kexatu dira. Horrez gain, ez da talde lana behar bezala sustatzen eta ikasleek pisu gehiegi eramaten dute etxera. Beraz, hau guztia hobetzeko lehen azaldutako proiektua aurkezten dizuegu.
Gure proiektuak etorkizunari begira hezkuntzaren garapena bultzatzen du eta merkatuan agertzen diren teknologia berrietara egokitzen da. Gainera, lehendik ez dago horrelako enpresarik eta beraz, gure enpresa besteengandik bereizten da.

Gaur egungo aulkiak horrelakoak dira:





Gure proiektuarekin lotuta etorkizunekoak horrelakoak izango dira:




Gainera, ez da talde lana sustatzen eta gure proiektuak arazo hori aldatu nahi du U edo O formako mahai handi bat ezarriz, argazkian ikusten den moduan:



Erabili nahi ditugun tablet motak, bezeroen nahien arabera egingo ditugu. Hau da, bi tablet mota jarriko ditugu eskaintzan. Lehenengo aukera mahaietara itsatsita egongo diren tabletak

izango dira, ikasle edo langileek ezingo dituzte tabletak etxera eraman; guk aukera hau, enpresetan erabiltzea gomendatzen dugu. Bigarren aukera, tablet eta teklatu eramangarriak izango lirateke; hau da, gailuak etxera eramateko aukera izango dute, ikasleek etxean lana egin behar izatea ohikoa baita. Hauek dira gure bi aukerak, baina beti bezeroak nahi duen bezala pertsonalizatu ditzakegu.





Gure ideia pantaila digital gardenak erabiltzea izango litzateke mahaien aurrean igo eta jaisteko aukerarekin. Hauek dira bezeroen aukeran jarriko genituzke pantaila digitalak.


SAMSUNG DISPLAY
Brillare